Administrazioa konturatzen bada, berme epean, hornitutako ondasunak edota burututako lanak ez direla egokiak lortu nahi den helbururako, enpresa kontratuari egotzi dakizkiokeen bizio edo akatsengatik, eta uste badu haiek birjartzea edo konpontzea ez dela nahikoa helburu hori lortzeko, baztertu ahal izango ditu, epe horretan, eta enpresa kontratuaren kontura utzi.

Si la Administración constatase, durante el plazo de garantía, que los bienes suministrados y/o los trabajos realizados no son aptos para el fin pretendido como consecuencia de los vicios o defectos imputables a la empresa contratada y fuera presumible que su reposición o reparación no son suficientes para conseguir aquel fin, podrá, dentro de aquel plazo, rechazarlos y dejarlos a cuenta de la empresa contratada.

Epe hori igarotzen bada administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

Transcurrido dicho plazo sin objeciones por parte de la Administración quedará extinguida la responsabilidad de la empresa contratada.

26. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK KUDEATZEARI LOTURIKO BETEBEHARRAK.

26. OBLIGACIONES RELATIVAS A LA GESTIÓN DE PERMISOS, LICENCIAS Y AUTORIZACIONES

Kontratistak kudeatu beharko ditu udal-ordenantzetan eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen

La parte contratista estará obligada, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí misma y así se lo

arauetan ezarritako baimenak eta lizentziak, hornidura abiarazteko, egikaritzeko eta entregatzeko beharrezkoak direnak, salbu eta kontratazio-organoak kudeaketak bere kabuz egitea erabaki eta berariaz jakinarazten badu. Administrazioari eskatu beharko zaizkio horretarako behar diren agiriak.

haga saber de forma expresa, a gestionar los permisos, licencias y autorizaciones establecidas en las ordenanzas municipales y en las normas de cualquier otro organismo público o privado que sean necesarias para el inicio, ejecución y entrega del suministro, solicitando de la Administración los documentos que para ello sean necesarios.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Baimenduta dago kontratuaren xede diren prestazioen azpikontratazio partziala egitea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 215. artikuluan xedatutako eran eta baldintzetan.

Oinarrizko eskakizun batzuk bete beharko dira azpikontratazio horretarako. Hauek dira oinarrizko baldintza horiek:

a) Egin asmo duen azpikontratazio bakoitzari dagokionez, adjudikaziodunak aurrez udalari idatziz horren berri eman beharko dio, honako datu hauek aurkeztuz:

-Azpikontratistaren identifikazioa, haren nortasunari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko datuak emanez.
-Azpikontratistak egingo dituen kontratuko atalen identifikazioa.
-Azpikontratatuko dituen prestazioen zenbatekoa.

b) Ezin izango dira azpikontratatu administrazioarekin kontratuak egiteko baztertuta dauden pertsonekin edo enpresekin, ez eta azpikontratazioaren barneko prestazio zehatz horietarako gaitasunik, kaudimenik eta gaikuntzarik ez dutenekin ere.

c) Azpikontratatzen duen kontratistak, azpikontratistaren lanak hasi aurretik, lan horiek egingo dituzten langileen afiliazioa eta Gizarte Segurantzako alta egiaztatu beharko ditu, apirilaren 29ko 5/2011

27. SUBCONTRATACIÓN

Se autoriza la subcontratación parcial de las prestaciones accesorias objeto del contrato en los términos y con las condiciones que establece el artículo 215 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

La subcontratación deberá realizarse cumpliendo los requisitos básicos siguientes:

a) Comunicación previa y por escrito al Ayuntamiento de la adjudicataria de los datos siguientes en relación con cada subcontrato que pretenda realizar:

-Identificación de la subcontratista, con sus datos de personalidad, capacidad y solvencia.
-Identificación de las partes del contrato a realizar por la subcontratista.
-Importe de las prestaciones a subcontratar.

b) No podrá subcontratarse con personas o empresas inhabilitadas para contratar con la Administración ni carentes de la capacidad, solvencia y habilitación profesional precisa para ejecutar las prestaciones concretas que se subcontratan.

c) La parte contratista que subcontrate deberá comprobar con carácter previo al inicio de los trabajos que subcontrate, la afiliación y alta en la Seguridad Social de las partes trabajadoras que vayan a

Errege Lege Dekretuak, ezkutuko enplegua erregularizatu eta kontrolatzeko eta etxebizitzen zaharberritzea sustatzeko neurriei buruzkoak, xedatzen duena betez.

realizar los trabajos en cuestión en cumplimiento de lo establecido en el Real Decreto-ley 5/2011, de 29 de abril, de medidas para la regularización y control del empleo sumergido y fomento de la rehabilitación de viviendas.

d) Azpikontratazio horren barneko langileen ordezkariei informazioa eman beharko dio kontratistak, lan-legediarekin bat etorrita.

d) La parte contratista deberá informar a los representantes de las personas trabajadoras de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.

e) Kontratista nagusiaren aurrean soilik gelditukо dira behartuta azpikontratistak, kontratista nagusi horrek hartuko baitu bere gain udalaren aurrean kontratua gauzatzearen ardura osoa, administrazio-baldintza berezien agiriarekin eta kontratuarekin bat etorrita; udalak azpikontratazioen berri izateak ez du aldatutako kontratista nagusiaren erantzukizuna.

e) Las subcontratistas quedarán obligadas sólo ante la parte contratista principal que asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente al Ayuntamiento, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares y a los términos del contrato, sin que el conocimiento por parte del Ayuntamiento de la existencia de subcontrataciones altere la responsabilidad exclusiva de la contratista principal.

f) Gutxienez abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenean, aurreikusitako epeetan ordainduko die kontratistak azpikontratistei prestazioei dagokien itundutako prezioa. Hori horrela betetzen dela bermatzeko, udalari zuzendutako fakturazio bakoitzarekin batera, kontratu honen esparruan azpikontratatutako enpresa edo langile autonomoek aurreko hilabetean egindako lanen ordainketari dagokion agiria aurkeztu beharko du kontratistak.

f) La parte contratista deberá abonar a las subcontratistas el precio pactado por las prestaciones que realicen como mínimo en los plazos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para garantizar tal cumplimiento, con cada facturación al Ayuntamiento deberá la contratista aportar el justificante del pago de los trabajos realizados en el mes anterior por las empresas o autónomos/as que haya subcontratado en el marco del presente contrato.

28. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

28. MODIFICACIÓN DEL CONTRATO

Una vez perfeccionado el contrato, solo se podrán introducir modificaciones por razones de interés público, en los casos previstos en esta cláusula o en los supuestos y con los límites establecidos en el artículo 205 de LCSP.

29. KONTRATISTA ALDATZEA

Enpresak edo horien jarduera-adarrak bateratzen, bereizten, ematen edo eskualdatzen badira, kontratuak indarrean jarraituko du eragiketa horren ondoriozko erakundearekin, eta erakunde hori kontratuak ezartzen dituen eskubide eta betebeharren menpe geratuko da, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 98. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

Kontratistaren betebeharra da bere nortasun juridikoan egon daitekeen edozein aldaketaren berri ematea administrazioari, modu frogagarrian. Kasu horretan, dagozkion fakturak ordaintzeko legez ezarritako epeen zenbaketa eten egingo da, subrogazio-baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.

Subrogaziorik egin ezin bada kontratuaz arduratuko den erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua baliogabetu egingo da, eta kontratistaren errua izan dela ulertuko da ondore guztietarako.

29. SUCESIÓN EN LA PERSONA DE LA PARTE CONTRATISTA

En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato vigente con la entidad resultante, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se producen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Es obligación de la parte contratista comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previsto para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifique el cumplimiento de las condiciones de la subrogación.

Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el mismo, considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa de la contratista.

30. BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

30.1. Berandutzeagatiko zigorrak

Adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko epea eta kontratazio-organoak zehaztutako epe partzialak bete behar ditu nahitaez.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua betetzeko guztizko epea atzeratuko balitz, administrazioak kontratua suntsiaraz dezake, edo egun bakoitzeko zigorra ezar dezake, kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan, BEZa kontuan hartu gabe.

30. PENALIDADES POR INCUMPLIMIENTO

30.1.- Penalidades por demora

La adjudicataria queda obligada al cumplimiento del plazo de ejecución del contrato y de los plazos parciales fijados por el órgano de contratación.

Cuando la contratista, por causas imputables a la misma, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del

precio del contrato, IVA excluido.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak eskumena izango du kontratua suntsiarazteko, edo hura gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, beste zigor batzuk ezarriz.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5% del precio del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako prestazioak zati batean gauzatuko ez balira, administrazioak kontratua suntsiaraz dezake, edo lehenago zehaztutako zigorrak ezar ditzake.

Cuando la contratista, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución o por la imposición de las penalidades establecidas anteriormente.

30.2. Prestazioa ez betetzeagatiko edo oker betetzeagatiko zigorrak

30.2. Penalidades por incumplimiento o cumplimiento defectuoso de la prestación

Oso larritzat jotzen da adjudikaziodunak baldintza partikularren agiri honetako 22. klausulan zehaztutako funtsezko betebeharretatik edozein ez betetzea edota 24 klausulan ezarritako oinarrizko betebeharretatik edozein ez betetzea.

Se consideran muy graves los incumplimientos por parte de la parte adjudicataria de cualquiera de las condiciones especiales de ejecución establecidas en la cláusula 22 y de las obligaciones esenciales de la cláusula 24. de este pliego de cláusulas particulares.

Ez badira betebeharrak betetzen, kontratua suntsitu ahal izango da, gertaera hori salbuespentzat jotzen bada eta onbideratzeko aukera ikusten bada izan ezik, edota kontratua suntsitzea obraren intereserako komenigarria ez dela ikusten bada; kasu horietan, kontratua suntsitu ordez, dagokion zigorra ezarriko da.

Estos incumplimientos serán causa de resolución del contrato, salvo que se considere que la actuación es aislada y susceptible de reconducción, y que la resolución del contrato no resulta conveniente para el interés de la obra en cuestión, en cuyo caso se sustituirá por la penalización correspondiente.

Oso larritzat jotzen diren kontratuaren ez-betetze horien ondorioz, adjudikazio-prezioaren %1etik % 10era arteko zigorrak ezarriko dira (BEZ gabe) arau-hauste bakoitzeko edota epetik kanpoko egun bakoitzeko, arau-haustearen larritasunaren, errepikapenaren eta fede txarraren arabera.

Estos incumplimientos contractuales muy graves conllevarán la imposición de las penalidades coercitivas por importe de entre el 1% y el 10% del precio de adjudicación IVA excluido, por cada infracción y/o día de incumplimiento de plazos en función de gravedad, reincidencia y mala fe en la comisión de la infracción.

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Kontratistak azpikontratazioaren arloari dagokionez 27. klausulan zehaztutako betebeharrak betetzen ez baditu, azpikontratatutakoaren zenbatekoaren %1etik % 10era arteko zigorra ezarriko da, eta errepikatzen badu, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.

El incumplimiento por parte de la contratista de las obligaciones establecidas en la cláusula 27 en materia de subcontratación, conllevará una penalización del 10% del importe de lo subcontratado, siendo su reiteración causa de resolución del contrato.

Adjudikaziodunak beste edozein kontratu-betebehar betetzen ez badu edo oker betetzen badu, kontratuaren prezioaren %1etik % 10era arteko isun hertsagarria ezarriko da, larritasunaren arabera eta behin baino gehiagotan egin duen kontuan hartuta.

El incumplimiento por parte de la adjudicataria de cualquier otra de sus obligaciones contractuales o su cumplimiento defectuoso, conllevará igualmente una multa coercitiva por importe de entre el 1% y el 10% del precio del contrato, en función de su mayor o menor gravedad y reincidencia.

Adjudikaziodunari ezarriko zaizkion zigorrak direnak direla, ez-betetze horren ondorioz udalari edo hirugarrenei eragindako kalte eta galerengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko ditu kontratistak, eta udalaren kontra jo ahal izango du.

Las penalizaciones que se impongan a la adjudicataria son independientes de la obligación de la contratista de indemnizar por los daños y perjuicios que su incumplimiento ocasione al Ayuntamiento o a terceras partes con derecho a repetir contra el Ayuntamiento.

30.3. Zigorrak ezartzea

30.3. Imposición de penalidades

Kontratua hausteagatiko zigor eta kalte-ordain horiek ezartzeko, kontraesanezko espediente sumario bati jarraituko zaio. Espediente horren barnean, alegazioak egiteko 5 egun naturaleko epea emango zaio kontratistari, salaketa egiten denetik zenbatzen hasita. Alkateak edo hark eskuordetzen duenak ebatziko ditu alegazioak eta zigor-espedientea, zerbitzuaren udal-arduradunaren txostena eta txosten juridikoa egin ondoren. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari.

Para la imposición de estas penalizaciones e indemnizaciones por incumplimientos contractuales se seguirá un expediente contradictorio sumario, en el que se concederá a la parte contratista un plazo de alegaciones de 5 días naturales tras formularse la denuncia. Dichas alegaciones y el expediente de penalización será resuelto, previo informe de la persona responsable municipal del servicio e informe jurídico, por el Sr. Alcalde o Concejal/a en quien delegue, resolución que pondrá fin a la vía administrativa.

Zigor horiek ezartzeko espedientea gertaeren berri idatziz jasotzen duen unean abiaraziko du Udalak. Hala ere, betebeharrak ez bete arren, horrek lanak gauzatzeko orduan ondorio larririk eragiten ez duela ondorioztatzen bada edo zigor-espedientea abiaraztea kontratuaren martxarako onuragarria

El inicio del expediente para la imposición de estas penalidades por el Ayuntamiento se realizará en el momento en que tenga conocimiento por escrito de los hechos. No obstante, si se estima que el incumplimiento no va a afectar a la ejecución material de los trabajos de manera grave o que el inicio del

baino kaltegarriagoa izango dela jotzen bada, kontratuaren berme-epea amaitu baino lehenagoko edozein unetan abiarazi ahal izango da espedientea.

expediente de penalización puede perjudicar más a la marcha de la ejecución del contrato que beneficiarla, podrá iniciarse dicho expediente en cualquier momento anterior a la terminación del plazo de garantía del contrato.

Ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak berehala gauzatu ahal izango dira, eta udalak kontratistari egin behar dizkion ordainketetatik kendu ahal izango dira. Ordainketa guztiak eginak baditu udalak, behin betiko bermetik kendu ahal izango dira kopuru horiek, eta behin betiko bermea zigorra ordaintzeko nahikoa ez bada, premiamendu-bide administratiboa erabiliz egin ahal izango da erreklamazioa, zuzenbide publikoko sarreratzat hartu behar delako.

Las penalidades e indemnizaciones impuestas serán inmediatamente ejecutivas y se harán efectivas mediante deducción de los pagos correspondientes que el Ayuntamiento tenga pendientes de abonar a la contratista. Si ya no existiesen cantidades pendientes de pago, se podrán hacer efectivas contra la garantía definitiva y si ésta no alcanzase el montante de la penalización, se podrá reclamar por la vía administrativa de apremio por considerarse ingreso de derecho público.

31. KONTRATUA BALIOGABETZEA

31. RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

Baldintza-agiri honetan adierazitako kasuetan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 211. eta 306. artikuluetan zehaztutako kasuetan suntsiarazi ahal izango da kontratua; eta kontratazio-organoak erabakiko du, edo ofizioz edo kontratistak eskatuta gauzatuko da.

La resolución del contrato tendrá lugar en los supuestos que se señalan en este Pliego y en los fijados en los artículos 211 y 306 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y se acordará por el órgano de contratación, de oficio o a instancia de la contratista.

Gainera, kontratazio-organoak kontratua suntsiarazi ahal izango du kontratua gauzatzeko zehaztutako guztizko epea betetzen ez denean, edo epe partzialak betetzen ez direnean, eta guztizko epea betetzea ezinezkoa izango dela aurreikusten denean, betiere, kontratazio-organoak, kontratua suntsiarazi ordez, zigorrak ezartzea erabakitzen ez badu, 30. klausularekin bat etorrita.

Además el contrato podrá ser resuelto por el órgano de contratación cuando se produzcan incumplimiento del plazo total o de los plazos parciales fijados para la ejecución del contrato que haga presumiblemente razonable la imposibilidad de cumplir el plazo total, siempre que el órgano de contratación no opte por la imposición de las penalidades de conformidad con la cláusula 30.

32. JARRAIPENAZ ETA EGIKARITZEAZ ARDURATUKO DEN UNITATEA

32. UNIDAD ENCARGADA DEL SEGUIMIENTO Y EJECUCIÓN

SPKLren 62.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Hirigintza saila izango da kontratuaren jarraipenaz eta egikaritzeaz

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 62.1 de la LCSP, la unidad encargada del seguimiento y ejecución

exekuzio arruntaren unitate arduraduna.

ordinaria del contrato será el Departamento de Urbanismo.

33. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

33. CONFIDENCIALIDAD Y TRATAMIENTO DE DATOS

33.1.- Konfidentzialtasuna

33.1.- Confidencialidad

Enpresa adjudikaziodunak (datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik) eta haren langileek, osotasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte eskura dituzten datu pertsonalak, baimendu gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako babesa eta ustekabeko galera, suntsipen edo kaltearen aurkako babesa barne, eta, horretarako, neurri tekniko edo antolakuntzazko egokiak aplikatu behar dituzte, Datuak Babesteko Lege Organikoan eta 2016/679 Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), Pertsona fisikoen babesari buruzkoan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, ezarritakoari jarraituz.

La empresa adjudicataria (como encargada del tratamiento de datos) y su personal en cumplimiento de los principios de integridad y confidencialidad deben tratar los datos personales a los que tengan acceso de forma que garanticen una seguridad adecuada incluida la protección contra el tratamiento no autorizado o ilícito y contra su pérdida, destrucción o daño accidental, mediante la aplicación de medidas técnicas u organizativas apropiadas de conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento 2016/679 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos).

Betebehar hori sekretu profesionalaren betebeharren osagarria da, eta datuen tratamenduaren arduradunarekin (udala) egindako kontratua amaitu bada ere, indarrean jarraituko du.

Esta obligación es complementaria de los deberes de secreto profesional y subsistirá aunque haya finalizado el contrato con el responsable del tratamiento de los datos (Ayuntamiento).

33.2.- Datuen tratamendua

33.2.- Tratamiento de datos

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie eskaintza eta kontratazioa egiteko behar diren gainerako agiriak aurkeztuz biltzen diren izaera pertsonaleko datuak Udal honek tratatuko dituela, kontratuaren garapena behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento general de protección de datos, los licitadores quedan informados de que los datos de carácter personal que, en su caso, sean recogidos a través de la presentación de su oferta y demás documentación necesaria para proceder a la contratación serán tratados por este Ayuntamiento con la finalidad de garantizar el adecuado mantenimiento, cumplimiento y control del desarrollo del

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

contrato.

Lizitatzaileen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, honako datu hauen berri izango dute:

En relación con el tratamiento de datos personales de las licitadoras, quedan informadas de los siguientes datos:

Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa *Información básica sobre protección de datos*	
Tratamenduaren Arduraduna *Responsable del tratamiento*	Zumaiako Udala Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Datuak Babesteko Ordezkaria: Dbo@zumaia.eus Ayuntamiento de Zumaia – Zumaiako Udala Foruen plaza, 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Delegado/a de protección de datos: dbo@zumaia.eus
Helburua *Finalidad*	Udal-kontratazioko espedienteetan (lizitazio-espedienteak eta zerrendatutakoak) eta argitaratutako edo jakinarazitako informazioan eta dokumentuetan jasotako informazio pertsonala kudeatzea. Gestionar la información personal contenida en los expedientes de contratación municipal (expedientes de licitación y relacionados) así como en la información y documentos publicados o notificados).
Zilegitasuna *Legitimación*	DBEDBLO 8.1 artikulua: legezko betebeharragatik buruturiko datuen tratamendua. Artículo 8.1 LOPDGDD: tratamiento de datos personales en cumplimiento de obligaciones legales.
Komunikazioen hartzaileak *Comunicación de datos*	Ez da datu komunikaziorik aurreikusten. No se realizarán comunicaciones de datos.
Eskubideak *Derechos*	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkatzeko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea du, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko ere. Tiene derecho a ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, portabilidad y limitación, así como presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección Datos.
Informazio gehigarria *Información adicional*	Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: Https://zumaia.eus/eu/udala/datuen_babesa Puede consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en el apartado de protección de datos de nuestra página web: https://zumaia.eus/es/ayuntamiento/Proteccion_de_datos

34. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzeko prerrogatibak, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebazteko, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzeko, kontratua suntsiarazteko eta suntsiaraztearen ondorioak zehazteko eskumenak, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta bertan

34. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la misma.

ezarritako betekizunei eta ondorioei lotuta.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

35. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hau oinarritzat hartuta egingo den kontratuak hornidurako eta zerbitzuetako kontratu administratibo misto izaera izango du. Ondorengo arauen bitartez arautuko da:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.
- Administrazio Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzeko baliatutako urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua eta Herri Administrazioetako kontratazioei ezar dakizkiekeen gainerako arauak, 817/2009 Errege Dekretua indarrean jarriz geroztik indarrean badaude.
- Administrazio-baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria.
- Memoria baloratua
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.
- Kontratua formalizatzen den dokumentua.

Administrazio-baldintza partikularren agiri honetan eta espediente honi erantsitako gainerako agiri teknikoen artean kontraesanen bat baldin badago, Agiri honetan ezarritakoa gailenduko da.

IV.- NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO, RECURSOS Y JURISDICCIÓN COMPETENTE

35. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter de contrato administrativo mixto de suministros y servicios y se regirá por las siguientes normas:

- La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.
- El Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
- El Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas y esté vigente tras la entrada en vigor del Real Decreto 817/2009 y al resto de normas aplicables a la contratación de las Administraciones Públicas.
- El presente pliego y el pliego de prescripciones técnicas.
- La memoria valorada
- La oferta presentada por la adjudicataria.
- El documento en que se formalice el contrato.

En caso de contradicción entre lo establecido en el presente Pliego de cláusulas administrativas particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto

en este Pliego.

36. ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren interpretazioaren, aldaketaren, edo deuseztatzearen eta beronen eraginen ondorioz sor daitezkeen auziak Kontratazio organoak ebatziko ditu. Haren erabakiek amaiera emango diote administrazio bideari, eta berehala betearaziko dira. Nahi izanez gero, haien aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hartu zituen organo beraren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. Artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren arabera, edo bestela, administrazioekiko auzi errekurtsoaren bidez inpugnatu daitezke Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedaturikoaren arabera. Horrez gain, egokitzat hartzen duen beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango du interesdunak.

Hori guztia, interesatuak egokitzat hartzen duen beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izateko aukeraren kalterik gabe.

36. RECURSOS Y JURISDICCIÓN COMPETENTE

Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación y resolución del contrato, y efectos de ésta, serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa, y serán inmediatamente ejecutivos, pudiendo ser recurridos potestativamente en reposición ante el mismo órgano que los dictó de conformidad con lo establecido en los arts. 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o ser impugnado mediante recurso contencioso-administrativo, de acuerdo con lo en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso administrativa.

Todo ello, sin perjuicio de que la persona interesada pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

EGINBIDEA: Zumaiako Udaleko Alkateak, baldintza administratiboen agiri hau onartu du 2022ko apirilaren 7ko 445/2022 Alkate Dekretu bidez.	**DILIGENCIA:** El presente Pliego de cláusulas administrativas ha sido aprobado por Decreto de Alcaldía 445/2022 de fecha 7 de abril de 2022.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

CESTONA UNANUE ANDER
08/04/2022